

zer ote?

Zizurkilgo aisialdirako gida

UGI SS-0197/03

maiatza saltsan

Zizurkilgo Euskara biziberritze plana 2005-2008



www.zizurkil.com

maiatza 2009 | 70. zenbakia | UDABERRIA

Aurera Plaza 3 | 20159 ZIZURKIL | 943 692495



mai.3 Andatza eguna

11'00etan: Hamaiketakoa: salda, txorizoa, haragi egosia eta edaria.
12'00etan: Herri kirol eta jokoak haurrentzat eta helduentzat.
14'00etan: Bazkaria (norberak berea eramanda). Kafea eta kopa banatuko dira.
Goizean zehar, erromeria: trikitalari eta bertsolariak.



mai.4 Katxalin Elkarte

Bularreko Kantzerrari buruzko hitzaldia 17'30ean Atxulondon.

mai.5 Zizurkilgo haur bertsolari eta dantzarien emanaldia

18'00etan Atxulondon.



mai.10

Herri Urrats 2009



Zinea euskaraz

maiatzak 13, 20 eta 22

“Franklin eta lakuko altxorra”, “Pepper” eta “Irabazle & Galtzaile”
11'00etan Villabonako Gurea Zinean.



mai.15 San Isidro eguna

11'00etan: Meza.
12'00etan: Aizkolari eta harrijasotzaileak.
14'00etan: Bazkaria Plaza Etxeberri jatetxean trikitalari eta bertsolariekin. Bertan izen eman behar da.
18'30: Herriko gazteen arteko pilota partidak.



mai.17 Zizurkilgo XI Biatloia



mai.17 Landarbaso abesbatzak

San Millan Elizako 11'00etako meza abestuko du eta, ondoren, kontzertua.



mai.29 HERNANDORENA IPUIN LEHIAKETAKO liburuaren aurkezpena eta IPUIN MAGIKOAK

Bihar Txotxongilo taldearen eskutik 18'00ean Atxulondo Kultur Etxean.



mai.30 Senidetze eguna:

AIZTONDO-COMUNIDAD SEGUNDO MONTES (EL SALVADOR):



- 12'00etan: Segundo Montesetik etorritako ordezkariet ongietorria eta Mercedes Venturari omenaldia Paus Plazan, Loatzo Musika Eskolako haurren parte hartzearekin.
 - Kantu Kalekoen emanaldia.
 - Ondoren: Talo solidarioak.
 - 16'30ean: Aduna, Asteasu, Villabona eta Zizurkilgo ikastetxeetako haurren arteko herri kirolak.
 - 21'00etan: BERTSO AFARIA Atxulondo Jatetxean: Egaña eta Amets Arzallus.
- Prezioa: 22 euro (2 euro Segundo Montes komunitateko haurreskoletan baratzak sortzeko proiektura bideratuko dira).

Pasarelaren inaugurazioa

Maiatza erdialdean inauguratuko da oinezkoentzat jarriko den Zizurkil-Villabona pasarela.

Bestelakoak

OPORRETAN EUSKARAZerako BEGIRALEAK:

Ekainaren 22tik uztailaren 17ra bitartean burutuko da Oporretan Euskaraz eta begiraleen zerranda osatuko da. Deialdian parte hartu ahal izateko ezinbesteko baldintzak ondorengoak dira: Zizurkil enrolatua egotea; 18 urteak beteak izatea edo 2009. urtean betetzea; euskara ondo menderatzea eta azterketa teoriko-praktikoa egitea. Izenak emateko epea maiatzaren 25ean bukatuko da.

maiatza saltsan OTEIZA, proyecto de vida